AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3144

720/2012 EBAZPENA, ekainaren 6koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Ebazpen honen bidez, aldatu egiten da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 572/2012 Ebazpena, zeinen bidez izendatzen baita hautatze-probetarako kalifikazio-epaimahaia, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan duen Fakultatibo Mediko eta Teknikarien LanbideTaldeko Mediku (Fakultatibo Espezialista Toraxeko Kirurgiako Medikua) kategorian pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko.

Indarrean dagoen legeriak emandako ahalmenen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 572/2012 Ebazpena aldatzea, Mediku (Fakultatibo Espezialista Toraxeko Kirurgiako Medikua) kategoriako kalifikazio-epaimahaiari dagokionez. Honako aldaketa hau da onartu da:

a) Eduardo Alcaraz Manzano jauna bosgarren bokal titularra izateko egin zen izendapena baliogabetzea.

b) Juan Baltasar Casanova Viudez bosgarren bokal titular izendatzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren 22. oinarrian ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 6a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.